

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5393

EBAZPENA, 2013ko azaroaren 25ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaz kanpoko euskaltegi eta ikasketa-elkarteei 2013ko udako eta 2013-2014 ikasturtearen lehen txandako ikasleen matrikula-kostuak estaltzeko diru-laguntzak ematen dizkiena.

Irale programa arautzen duen 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak (1994ko otsailaren 11ko EHAA), Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko klase-emankizunez diharduenean, honela dio bere 23. artikuluko 4. idatzi-zatian: Hezkuntza Sailburuordetzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko du, aldiro-aldiro, ekitaldi jakin batean Irale programan parte hartzeko onartzen diren ikasketa-elkarteen zerrenda.

Eginbide hau zuzen eta garaiz burutu ahal izateko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 24ko Aginduak (2013ko abuztuaren 26ko EHAA) 2013ko udarako eta 2013-2014 ikasturterako Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ekitaldiak (konkretuki, irakastorduz kanpokoak) jakinarazi zituen, eta beraien mamikuntzan parte hartu nahi duten ikasketa-elkarteentzako deialdia zabaldu.

Agindu horren ondorioz, 2013ko udan eta 2013-2014 ikasturtean Irale programaren Sailburuordetzaz kanpoko ikastaro-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkartek onesten dituen ebazpena eman du Hezkuntzako sailburuordeak, 2013ko urriaren 11n (2013ko urriaren 24ko EHAA).

Ebazpen horrek, bere xedapen gehigarrietan, material-prestakuntza eta zenbait kasutako joan-etorri gastuak ere zehatz arauturik ditu.

Horren guztiaren garapenez, 2013ko udako eta 2013-2014 ikasturtearen lehen hiruhileko hainbat klase-emankizun burutu dute kasuan kasuko ikasketa-elkartek. Emandako klase-emankizunak ordaintzea dagokio, beraz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari. Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ebazpen honen eranskinean zehazten diren euskaltegi eta ikasketa-elkarteei bertan adierazitako diru-kopuruak ordaintzea, 2013ko udako eta 2013-2014 ikasturtearen lehen txandako matrikula-gastuak estaltzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematen den egunaren hurrengotik hasi eta handik hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unetik izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 25a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

2013ko abenduaren 12a, osteguna

ERANSKINA

ARABA

Euskaltea	Diru-laguntza
Laudioko Udal Euskaltea	1.954,51
Euskaraz Koop. E.	9.151,65
Udaberria elkarte	10.844,93
Hegoalde euskaltea	3.381,95
Asociación Cultural Ardatz	40.186,05
Oiongo euskaltea	1.474,20

GIPUZKOA

Euskaltea	Diru-laguntza
Hitzez euskaltea	4.063,50
Aitzol U.E.–Ayuntamiento de Tolosa	661,50
Bergarako Udal Euskaltea	627,00
Gernika XXI, S.L.	5.455,35
Ilazki euskaltea S.C.L.	5.821,20
Urrats euskaltea, S. Coop. Ltda.	5.173,20
Euskaraz Koop. E.	12.841,66
Emun Koop. E.	13.877,18
Herri Jakintza euskaltea	5.346,00
Maizpide Euskaltea-Lazkao	11.676,64
Gipuzkoako Bertsozale Elkarte	573,36
Urtxintxa Eskola-Gipuzkoa	763,40
Soziolingüistika Klusterra Elkarte	2.988,49
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	20.600,90
Azpeitiko Udal Euskaltea	561,90

BIZKAIA

Euskaltea	Diru-laguntza
Aula de cultura de Getxo (Getxoko UE)	4.489,50
Enkarerrietako UE	422,91
Txorierriko UE	999,28
Mastitxu euskaltea-Leioako udala	376,10
Portugaleteko UE	161,94
Sestaoko UE	2.143,20
Erandioko UE	631,04
Barakaldoko Euskara Udal Erakundea	1.362,90
Basauriko UE	2.267,16
Muskizko UE	1.855,60
Santurtziko UE	2.072,30
Mungiako UE	451,20

2013ko abenduaren 12a, osteguna

Euskaltea	Diru-laguntza
Amorebieta-Etxanoko UE	317,34
Orixe Euskaltea, S.A.L.-(Mikelats-Bilbo)	14.487,20
Gabriel Aresti-Txinta Koop.	31.886,51
Euskaraz Koop. E.	38.321,29
Aurten Bai-Zomotzako Barnetega	26.848,70
Arrigorriagako UE	639,60
Juan Mateo Zabala euskaltea	12.062,70
Bilbo Zaharra euskaltea	21.717,65
Ulibarri euskaltea	25.929,57
Gotzon Garitaonaindia euskaltea	1.489,50
Jose Antonio Agirre euskaltea	1.160,00
Bilboko Labayru-Inst. Diocesano E.J. Labayru Bilbao	3.473,25
Euskal Irakasletoa - Deustu unibert.	3.677,40